



**PASAIKO UDAL
EUSKALTEGIA**

www.pasaia.eus/euskaltegia
IFK/CIF G20135521
Euskadi Etorbidea 61, 20110 Pasaiakoa
Tel: 943 004340 / Faxa: 943 004341
euskaltegia@pasaia.net

AURREKARIAK

Lan-poltsa honek Euskaltegian egun indarrean dagoen lan-poltsa zabalduko du, hain zuzen ere, 2019ko azaroaren 18ko ebazpenaren bidez eratutako lan-poltsa.

Alabaina, lan-poltsa hori agortuta dago eta Udalak ezin die aurre egin gerta litezkeen langile beharrei, hala nola: lanpostu hutsak bete, ordezkapenak eta abar.

Sailak behar bezala funtzionatzen duela bermatze aldera, beharrezkotzat jotzen da, premiaz, euskaltegiko irakasleen lan-poltsa zabaltzea.

Beharrezkoa eta premiazkoa da lan-poltsa sortzea, eta ondoren bitarteko langileak izendatzea, eta horretarako behar besteko aurrekontu-zuzkidura badago. Hori dela eta, hautaketa-prozesuak ahalik eta arinena izan behar du, lanpostuak berehala bete ahal izateko. Arrazoi berberengatik komeni da hautaketa-prozesuaren izen-ematea Enplegu Zerbitzu Publikoaren (LANBIDE) bidez egitea.

Zuzenbideko oinarriak

Ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, deialdi publikoa egin ondoren, eta betiere merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz, Udaltzako lehendakariak bitarteko funtzionarioen izendapenak egin ahal izango ditu hutsik dauden plazetarako, baldin eta, egoerak eskatzen duen premiaz, karrerako funtzionarioek zerbitzua eman ezin badute.

Era berean, izangaiak erakartzeko epeak edo zailtasunak direla-eta, salbuespen gisa, enplegu-zerbitzu publikoetara jo ahal izango da aurretiazko hautaketa egiteko.

ANTECEDENTES

Esta bolsa de trabajo ampliará la que está en vigor actualmente en el Ayuntamiento, creada mediante resolución de 18 de noviembre de 2019.

No obstante, dicha bolsa está agotada y el Euskaltegi no puede hacer frente a las diferentes eventualidades que pueden surgir con el personal, así como la cobertura temporal de puestos vacantes, sustituciones, etc.

Que en aras a garantizar el correcto funcionamiento del departamento, se considera necesario proceder, con carácter urgente, a la ampliación de la bolsa de empleo de profesorado de euskaltegi municipal.

Que la creación de la bolsa y posterior nombramiento de interinos, con dotación presupuestaria suficiente, se debe llevar a efecto de forma necesaria y urgente, razón por la cual el procedimiento de selección debe ser lo suficientemente ágil para poder cubrirlo. Los mismos motivos aconsejan que la inscripción en el proceso selectivo se realice a través del Servicio Público de Empleo (LANBIDE).

Fundamentos de derecho

Conforme establece la Disposición Adicional Primera del Real Decreto 896/1991, de 7 de junio, previa convocatoria pública y con respeto, en todo caso de los principios de mérito y capacidad, el Presidente de la Corporación podrá efectuar nombramientos de personal funcionario interino para plazas vacantes siempre que no sea posible, con la urgencia exigida por las circunstancias, la prestación del servicio por funcionarios de carrera.

Asimismo, se establece que, por razones de plazos o de dificultad para captar candidatos, podrá recurrirse, con carácter excepcional, a los servicios públicos de empleo para realizar la preselección.

Izangaien betekizunak karrerako funtzionario gisa lanpostura sartzeko probetan parte hartzeko eskatzen diren berberak izango dira.

Los requisitos de los/as aspirantes serán los mismos que los exigidos para participar en las pruebas de acceso como funcionario de carrera al puesto.

Hautaketa-prozesuan epaimahai bat eratuko da, horretarako izendatuko dena, eta kide kopuru bakoitia izango du, gutxienez hiru. Balorazioak egin ondoren, epaimahaiak hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda bidaliko dio organo eskudunari, lortutako puntuazioen arabera handienetik txikienera ordenatuta, eta, hala dagokionean, dagokion izendapena proposatuko du.

En el proceso selectivo se constituirá un Tribunal, designado al efecto, que estará formado por un número impar de miembros, no inferior a tres. Realizadas las valoraciones, el Tribunal elevará al órgano competente, ordenada de mayor a menor por las puntuaciones obtenidas, la relación de los aspirantes que hubieran superado el proceso selectivo y, cuando proceda, propondrá el correspondiente nombramiento.

Deialdiaren oinarriak udal webean eta [LANBIDEn argitaratu](#) beharko dira.

Las bases de la convocatoria deberán publicarse, al menos, en la web municipal y en [LANBIDE](#).

Aurreko guztia kontuan izanik, honakoa

Que a la vista de todo ello

EBAZTEN DUT

RESUELVO

Lehena Udalean egun indarrean dagoen irakasle lan-poltsa zabaltzeko deialdia eta oinarriak onartzea.

Primero.- Aprobar la convocatoria y bases para la ampliación de la bolsa de empleo de profesorado de Euskaltegi.

Bigarrena .- Deialdia eta oinarriak Lanbiden eta udalaren web orrian argitara daitezen agintzea.

Segundo.- Ordenar la publicación de la convocatoria y de las bases en Lanbide y en la web municipal.

Pasaia, 2022ko azaroaren 17a

Nahikari Otermin

LANBIDEREen bitartez Pasaiaiko udal euskaltegiko irakasle lan-poltsa zabaltzeko deialdia eta oinarriak

1. Deialdiaren helburua

Deialdi honen xedea da Pasaiaiko Udal euskaltegiko lan-poltsa zabaltzea da lehiaketa-sistemaren bitartez.

Lan-poltsa honek Udalean egun indarrean dagoen lan-poltsa zabalduko du, hain zuzen ere, 2019ko azaroaren 18 an ebazpenaren bidez eratutako lan poltsa.

Lehiaketa-fasea gainditzen duten izangaiak lan-poltsa horretan sartuko dira, eta horrek eskubidea emango die Euskaltegian sortzen den edozein langile premia betetzeko deituak izateko, hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkeran. Izangaiak lan-poltsan sartuko dira lortutako puntuazioaren hurrenkeran, eta puntuaziorik onena lortu duen izangaia aurreko lan-poltsako azken kidearen atzetik jarriko da.

2. Izangaiak bete beharreko baldintzak

Ondorengo baldintzak bete beharko dira onartua izateko, eta balegokio, lehiaketan parte hartzeko:

- a) Nazionalitateari dagokionez, baldintza hauetako bat:
 - Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea.
 - Europar Batasuneko estatueto nazionalitatea duen norbaiten ezkontidea izatea, edozein nazionalitate izanda ere, eta betiere zuzenbidez bananduta ez egotea. Halaber, baldintza beretan parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatueto nazionalitatea dutenen ondorengoek, baldin eta 21 urte baino gutxiago badute, edo 21 urtetik gorakoak izan arren norbaiten mendekotasuna badute.
 - Europar Batasunak sinatutako eta espainiar estatuak berretsi tako Nazioarteko Itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatzekoa den eremuko izatea.
Espainiar estatuan bizi ez diren izangaiak, eskabidearekin batera, dokumentazioa aurkeztu behar dute alegatzen dituzten baldintzak egiaztatzeko.
- b) 18 urte izatea.
- c) Unibertsitateko diplomatura, gradua edo horien baliokidea den titulazioa edukitzea. Edonola ere, onartzekoak izango dira HABEk Euskaltegietako irakasleak homologatzeko egin zituen probak gainditu zituzten irakaslegaiak.
- d) Euskarako 4. hizkuntza eskakizunaren (HE) edo horren baliokidearen jabe izatea. Ez da egingo hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketarik prozesuan zehar.
- e) Lanpostuaren berezko egitekoak normaltasunez burutzea galarazten duen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.
- f) Diziplina-espeditate bitartez inongo Administrazio Publikotako zerbitzutik baztertua edo kanporatuta ez egotea, eta desgaitasunik ez izatea enplegu edo kargu publikoak betetzeko.
- g) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun- edo bateraezintasun-auziren batean sarturik ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.

Lanpostuaren ezaugarriak hurrengo hauek dira:

- Titulazioa: Unibertsitateko diplomatura edo gradua, edota HABEren Euskaltegietako irakasle homologazioa.
- Sailekpen-taldea: A2
- Lanpostu-motako osagarria: 17
- Hizkuntza-eskakizuna: Teknikari gaitua, 4.HE edo baliokidea(ezean, legean xedatutakoa aplikatuko da)

Eguneko lanaldia Pasaiaiko Udalak urtero erabakitzen duena izango da, zerbitzuaren izaera eta

beharrizan espezifikoak kontuan hartuta betiere.

3. Izangaiak aukeratzea

Lanpostua betetzea premiazkoa denez, komeni da [Enplegu Zerbitzu Publikora \(LANBIDE\)](#) jotzea; beraz, zerbitzu horrek hautatutako izangaien artean egingo da aukeraketa.

Eskaerak aurkezteko epea **7 egun naturalekoa** izango da, Euskal Enplegu Zerbitzuak iragarkia argitaratzen duenetik kontaktzen hasita. Era berean, deialdia udalaren web orrian argitaratuko da.

4. Komunikazioak, jakinarazpenak eta informazioa

Prozedura honetatik eratorritako komunikazio eta jakinarazpen guztiak Pasaiako Udalaren web orrian argitaratuko dira.

5. Merituen balorazioa

Epaimahaiak hurrengo merituak baloratuko ditu, baldin eta eskariak epe barruan aurkeztuak eta oinarri hauetan xedatutakoaren arabera egokiro egiaztatuak izan badira.

1. Irakaskuntzako esperientzia: 15 puntu gehienez.

- a) Euskaltegiko publikoetan irakasle-lanetan egindako 100 eskola-orduko 0,2 puntu.
- b) Euskaltegiko homologatuetan edo libreetan irakasle-lanetan egindako 100 eskola-orduko 0,1 puntu.

Aurkeztutako dokumentazioan horiek baino ordu-kopuru txikiagoak adieraziko balira, proportzionalki baloratuko dira.

Bekak eta lanbide-praktikak ez dira kontuan hartuko.

2. Titulu akademikoak.

- a) Euskal Filologiako Gradu edo Lizentzia edo Euskal Ikasketetako Gradua: 3 puntu.
- b) Irakasle-ikasketak Euskal Filologian: 2 puntu.
- c) Irakasle-ikasketak, HABEren Euskaltegietako irakasle homologazioa. 1 puntu.
- d) Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate-Masterra: 1 puntu.

3. Helduei euskara irakastearekin zerikusia duten ikastaroak, HABEK, EHUK, UNEDek, UEUak edo IVAPek emanak; 2005eko urtariletik aurrera egindakoak baino ez dira kontuan hartuko: 3 puntu gehienez.

- a) 11tik 50 ordura bitarteko ikastaroak: 0,25 puntu.
- b) 51tik 100 ordura bitarteko ikastaroak: 0,5 puntu.
- c) 101etik 200 ordura bitarteko ikastaroak: 1 puntu.
- d) 201 ordutik gorako ikastaroak: 0,5 puntu.

6. Hautagaiak onartzea

Izena emateko epea bukatu ondoren, udal web orrian argitaratuko da onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda.

3 eguneko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda hori behin betiko bilakatuko da automatikoki. Erreklamazioren bat aurkeztuz gero, horiek onartu edo ezetsiko dira

eta epaimahaiak beste ebazpen bat emango du, behin betiko zerrenda onartzeko.

7. Epaimahai kalifikatzailea.

a) Osaera

Presidente:

-Susana Garro, Euskaltegiko Zuzendaria, edo ordezkatzeko duen funtzionarioa

Kideak:

- Consuelo Gorostidi, Euskaltegiko idazkari akademikoa, edo ordezkatzeko duen funtzionarioa

- Berta Zumalde, Irakasle- hizkuntza normalizazioko teknikaria, edo ordezkatzeko duen funtzionarioa.

8. Epaimahaiaren proposamena

Egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko epea bukatu ondoren, epaimahaiak behin betiko kalifikazioak argitaratuko ditu.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa prozesu osoan lortutako puntuak batuz aterako da; eta puntuaren arabera ezarriko da zerrendako izangaien hurrenkera.

Berdinketarik badago, irizpide hauek kontuan izanik ezarriko da hurrenkera ordena:

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua aplikatuta, emakumeei emango zaie lehentasuna, non eta beste hautagaiak sexuarengatik diskriminatzaileak ez diren eta neurria ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak dituen, hala nola, enplegua eskuratzeko arazoak dituen beste kolektibo batzuetakoa izatea.
2. Emandako zerbitzuetan puntuazio handiena lortu duenaren alde.
3. Oraindik ere berdinketa badago, hurrenkera ordena zozketa bidez ezarriko da.

9, Gertakariak, inpugnazioak eta legeria osagarria.

Epaimahaiak baimena du gerta daitezkeen zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesuaren garapen egokirako beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den galetan.

Interesdunek deialdi eta oinarri hauen aurka egin ahal izango dute, bai eta deialdiaren ondorioz eta epaimahaiaren lanaren ondorioz egiten diren administrazio-egintza guztien aurka ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan.

Oinarrietan aurreikusi gabekoetan, honako hauek aplikatuko dira:

Estatuko Administrazioaren zerbitzura diharduten langileak sartzeko erregelamendua, 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena; 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarriko arauak eta gutxienezko programak ezartzen dituena; APU/1461/2002 Agindua, ekainaren 6koa, bitarteko funtzionarioak hautatu eta izendatzeko arauari buruzkoa, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

Pasaian, 2022ko azaroaren 17 a

